

garabide
eraberririk

2022

lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

AURKIBIDEA

1.- Garabideren aurkezpena	4
2.- Aitzinsolasa	6
3.- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala.....	7
3.1.- Bilboko egoitza eta Plazara kooperatiba	8
3.2.- Joanes Igeregi Santamaria: Betidaniko garabidetarra bulego teknikoan.....	9
3.3.- Genero plana inplementatzen	10
4.- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza.....	12
4.1.- HIBIL: Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko 1. Lankide Sarea	13
4.2.- Merida-Donostia hitzarmena, maia hizkuntza bultzatzeko.....	14
4.3.- Tosepan: proiektua sendotzen	15
4.4.- Pausu berriak, nasa yuwearen eta kitxuaren aldeko senidetzean.....	16
4.5.- Sei biziberritze talde, elkarrekin lanean	17
4.6.- Irakasle mugimendua, ketxuaren alde.....	18
4.7.- Guaraniaren plana herritik agintarietara pasatzea helburu.....	19
4.8.- Wallmapuko larreetan hausnarrean	20
4.9.- Amazigaren aldeko argi-printzak Al Hoceiman	21
4.10.- Kaqchikelezko 65 istorio grabatu dituzte bideoan	22
4.11.- Ayiti espres, lehen kontaktu baten kronika	23
4.12.- Itzulpengintza eta interpretazio jardunaldiak	24
5.- Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian.....	25
5.1.- Hizkuntza Indigenak Ama Lurra Zaintzen	26
5.2.- Euskal lankidetzan hizkuntza gutxituekin lanean.....	27
5.3.- Errenteria: Hizkuntza aniztasuna komunitateen arteko elkarbizitzarako ...	28
6.- 2022ko balantzea	29
6.1.- Egitura.....	30
6.2.- Balantze ekonomikoa	31
7- Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak.....	32
7.1.— Erakunde babesleak.....	32
7.2.- Erakunde laguntzaileak.....	34

Garabide: lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide **irabazi asmorik gabeko Gobernuz Kanpoko Erakundea** da eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugu, baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.

Zer?

Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria

Euskal Herriak munduarekin partekatze duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrienetako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, **komunitate edo gizarte baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- **Lehen lerro estrategikoa:** finkatze instituzionala
- **Bigarren lerro estrategikoa:** formazioa eta aholkularitza
- **Hirugarren lerro estrategikoa:** gizarte aktibazioa Euskal Herrian

Zergatik?

Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako

UNESCOren arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren alde **gizartea antolatuta dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasagarriak** izan daitezzen.



kurduak



amazighak



maputxeak



guaraniak



aimarak



nasak



kitxuak



kaqchikelak



k'icheak



yucatango maiak



nawatak

Norekin?

Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bideragarriak izan daitezzen **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**.

Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitarekin ari da hizkuntza lankidetzan eta Euskal Herrian ere 80tik gora dira Garabideren entitate laguntzaile eta babesleak.

Nola?

Esperientzia trukearen bidez

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarrik hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahalduz (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagotzek elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

Non?

Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zabalean, **euskalgintzaren nazioarteko-tzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibazioarako tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatze, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

Hizkuntza gutxituen sendotze edo biziberritzearen aldeko ahaleginek oztopo berriak aurkitzen dituzte gaur egun. Izan ere, produkzio-prozesuak eta interakzio ekonomikoak maila globalean gertatzen dira. Teknologia berriak eta digitalizazioak gure errealitatea aldatu eta, indibidualizazioa hauspotuz, gizarte-harremanen zatiketa areagotu dute.

Horren ondorioz, hizkuntza gutxituen aldeko motibazioek, ohiko oztopoak ez ezik, beste berri batzuk ere aurkitzen dituzte gaur egun.

Hizkuntza-motibazioak bi multzo nagusitan banatu ohi dira: pragmatikoak eta sinboliko-identitarioak. Azken hauek, ohiko heldulekua izaten dira hizkuntza guxituen biziraupenerako: *“gure tradizio, kultura eta izaeraren ardatza”*... Gurean ere, mota horretako motibazioak izan dira sendoenak euskara bultzatzeko ahaleginetan.

Hala ere, egungo munduaren baldintza berriek berezko izaera eta erreferente tradizionaletatik urruntzera eramanez ohi dute hizkuntza gutxitua duten komunitateetako kideak; betiko argudioak ahulak dira gazte jendearengan, bereziki.

Egia da, hizkuntzekiko motibazio pragmatiko-instrumentalak ere egon badaudela, hizkuntza ezagutzak eman dakiguke nolabaiteko abantailaren ondorioz. Baina horrek hizkuntza nagusien alde jokatzen du, batik bat; ia inoiz gutxituen mesedetan.

Egungo egoerak hauspotu du Garabidek berezko duen hizkuntzen zaintzarekiko ardura. Horregatik, munduko kultura eta hizkuntza aniztasunaren garrantzia azpimarratuko duten arrazoibide berriak bilatu eta agerian jartzeari ere heldu berri dio.

1. LERRO ESTRATEGIKOA

FINKATZE INSTITUZIO- NALA

Bilboko egoitza eta Plazara kooperatiba

Garabideren Plan Estrategikoak hasieratik biltzen du lurralde-tasuna kontuan izateko eta indartzeko helburua, eta bide horretan pausu oso garrantzitsua eman du 2022an. Hori horrela, orain artean Debagoienan oinarritzen zen Garabide proiektua aurten zabaldu egin da bi aldetara. Batetik, Bilbon egoitza izango du Garabidek hemendik

aurrera, Euskararen Etxean. Han ari dira, jadanik, Garabideko bide, Bizkaian bizi direnak.

Horrez gain, iparraldeko Plazara Kooperatiba sortu berriarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du Garabidek eta bi helbururi iparraldetik erantzuteko asmoa hartu da. Batetik, frankofoniarpean dauden hainbat hizkuntza

komunitate gutxiturekin elkarlana handik egiteko erabakia hartu da, eta horren adibide, aurten amazigekin egin den lana. Horrez gain, Europako hizkuntza gutxiturekin hizkuntza lankidetzaz abian jarri da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Badalab erakundearen babesarekin.



JOANES IGEREGI SANTAMARIA

Betidaniko garabidetarra bulego teknikoan

Joanes, 37 urteko sopoloztarrak Julen Larrañaga ordezkatu du bulego teknikoan.

Humanitate eta enpresa gradua egin zuen HUHEZIn eta, ondoren masterra, 2. Hezkuntzan irakasle izan ahal izateko.

Garabiden boluntario lanean aritu da ia sorrera bertetik. Andoni Mujikak eman zion elkarte honen berri eta parte hartu du era askotako zereginetan: 2007an antolatutako lehen Trukean, besteak beste, sukaldari eta txofer lanak egin zituen, sorrerako zuzendaritzan ere parte hartu zuen.

Garabiderek izan duen lotura sekula ez da eten eta Guatemalan garatu du bere jarduna bereziki, gutxi batzuetan Garabidek kontratatuta, beste batzuetan bekaren baten bidez eta, besterik ez zegoenean, boluntario gisa.

2019an bueltatu zen Euskal Herrira, Bilbora zehazki eta, lanari dagokionez, hezkuntzan eta Uribe Kostako AEKn aritu da.

Garabidetik zer erakartzen dion galdetuta azkar erantzuten du: “beti lotuta egon naiz euskalgintzari, bizi dudana gainerako herriekin konparatzea eta komunitate horiek bertatik bertara ezagutzea mundiala da.”

Bere afizioengatik (mendia, bizikleta, potea, bertsoak...) topikoak badirudite ere Joanes ez da batere tipikoa. Ekologista da, baina ez gehienok modukoa, benetako ekologista, kotxea izateari uko egin dio, Bilbon bizikletaz mugitzen da eta Bilbotik kanpo autobusez.

Joanesen gaztetasunaren eta konpromisoa islatzeko adibide bakarra. Urria eta azaroan zehar 6 astez ibili zen bazterrik bazter Kolonbian, Ekuadorren eta Bolibian. Igande baten heldu zen Loiura Bolibiako Santa Cruzetik,

hurrengo egunean; hau da, astelehenean goizeko 9etan Aretxabaletan bulego teknikoaren asteroko bileran zegoen...Bilbotik bertara lineako autobusez etorrita.





Genero plana implementatzen

2020-2021 biurtekoan diseinatu zen genero planaren inplementazio fasea 2022 urte hasieran hasi da. Diagnosi fasean identifikaturiko lehenetsuen erantzuteko 28 ekintzekin osatu da hiru urtetan zehar inplementatu beharreko Garabideko genero berdintasunaren aldeko I.go ekintza plan estrategikoa.

Hiru urte horietan landu nahi dena definitzerako garaian hiru estrategia hartu dira kontuan:

- Erakundean hautemandako desberdinkeriak ezabatzea
- Ahalduzko prozesuak sustatzea
- Generoaren transbertsalitatearen eremu guztietara eramatea.

Hiru estrategia horietatik lau helburu definitu dira eta horiei erantzuteko sortu dira ekintzak:

- 13 ekintzarekin lortu nahi da lehen helburua, lidergoan politikan eta kulturaren genero ikuspegia txertatzea.
- Bigarren helburua lortzeko 6 ekintza diseinatu dira, pertsonen prozesuetan genero ikuspegia txertatzeko hain zuzen ere.
- Hirugarren helburua proiektuen diseinu eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzea da, eta horretarako 5 ekintza sortu dira.
- Laugarren helburua, gizar-tea eta inguruarekiko harremanak sendotzea, 4 ekintzarekin betetzeko ahalegina egingo da.

Besteak beste, HIBIL proiektua froga pilotu bezala hartu da planean, proiektuetan generoa nola txertatu ikusi eta ikasi ahal izateko lehen froga pilotu bezala. Martxoan Euskal Herrian egin zen formazioa giltzarri izan zen Garabidek aurrerantzean abian jarriko dituen proiektuetan generoaren trataera egokia egiteko. Froga arrakastatsua izan da eta mugarri ona aurreantzerako ekintzak diseinatu eta garatze-ko.

2. LERRO ESTRATEGIKOA

FORMAZIOA ETA AHOLOKULARITZA

12



Herri Indigenen Hizkuntzen Biziberritze Estrategiak Indartzeko Lankidetzaren Sarea

13

2021ean, HIBIL proiektuko 24 parte-hartzaileek on-line burutu zuten hizkuntza biziberritze estratēgien inguruko formazioa. 2022ko martxoan, Euskal Herrian egonaldia egin dute euskararen biziberritze esperientzian esanguratsuak izan diren erakunde edo ekimenak bertatik bertara ezagutzeko eta Euskal Herriko aditu edo erakunde desberdinen aholkularitzarekin beraien proiektuak borobiltzeko.

12 komunitate linguistikoko eta 11 estatuko 24 kide izan dira guzkerin:

- 3 Maputxe (Walmapu)
- 4 Amazig (Maroko, Algeria, Espainia)
- 2 Nasa yuwe (Kolonbia)
- Tutunaku 1 (Mexiko)

- Nawat 1 (Mexiko)
- 3 Yukatango maia (Mexiko)
- 4 Kitxua (Ekuador)
- Nawat pipil 1 (El Salvador)
- Guaraní 1 (Bolivia)
- Tseltal 1 (Mexiko)
- 3 Ketzua (Peru eta Bolivia)
- Kitxe 1 (Guatemala)

Hilabete horretan zehar, Euskal Herriko hainbat adituren eskutik hizkuntzaren biziberritze gakoak diren arlo desberdinei (hezkuntza, corpusa, kultur-gintza, hedabideak...) buruzko formazio teorikoa jaso dute. Horretaz gain, gure herrian barrera ibili dira -iparretik hegora eta ekialdetik mendebaldera- euskararen biziberritze gakoak izan diren erakunde eta eragile desberdinak ezagutzen: Arizmendi Ikastola, Luis Ezeiza herri eskola, Tafallako Ikastola, Errigora, Goiena Komunikazio taldea, Euskaltzaindia, Zenbat

gara, Aiaraldea ideien faktoria, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Saila eta Garapenerako Lankidetzaren Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako eta Beasaingo udalak, Elhuyar, Euskadi Irratia... Formazio teoriko eta praktikoko horrekin, on-line formazioan diseinatzen hasitako biziberritze proiektuak -beraien komunitateetan garatzekoak- borobildu dituzte tutoreen aholkularitzarekin.

Baina guztia ez da "lana" izan. KORRIKAREN 22.edizioan parte-hartzeko aukera ere izan dute, eta ilusio bereziarekin egin dute korrika euskararen eta munduko hizkuntza gutxitu guztien alde. Horretaz gain, partaide askok lehen aldiz ikusi eta zapaldu dute elurra Euskal Herrian, egonaldia are gogoan-garriagoa bihurtuz.

Merida-Donostia hitzarmena, maia hizkuntza bultzatzeko

YUCATANGO MAIA - MEXIKO



Aspalditik dator Garabide eta Yucatango maien arteko elkarlana. Formazio saio sakonak egin ostean, bertako maia aktibista talde batek Yucatango penintsulan herriz herriko zedulak sortzeko plan handi bat martxan jarri zuen, Wayé mugimendua. 2022-23 urteetan hasi dute proiektua, bost liberatu dituen talde teknikoarekin. Horretarako KF Fundazioaren diru laguntza sendoa izango dute gure maia lagunek.

Horrez gain, aspaldiko partez, Yucatango Merida hiriko udal politikariak sentsibilizatzeko lanak egin dira 2022an, maia hizkuntzaren alde lan egin dezaten, konpromisoa hartu dezaten. Horren haritik, Meridako udaleko hiru ordezkari politiko izan ziren irailean Euskal Herrian. Besteak beste, Donostiako Udalak eta Meridako Udalak hitzarmena sinatu dute, datozen urteetan hizkuntza lankidetzan elkarrekin lan egiteko.

Tosepan: Proiektua sendotzen

NAHUATLA - TOSEPAN - MEXIKO



2021eko memorian esaten genuen azken bi urteak ez zirela errazak izan: pandemia, Alvaro-ren bat-bateko heriotza... 2022. urtea gorabehera handirik gabeko urtea izan da, eta "Mah Xochiakan Tomasevaltahtolmeh/Proyecto de Florecimiento de Nuestras Lenguas" berdefinitu den bezala, finkatu da.

Urtearen balantzea egiterakoan, honako puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Planaren egitura sendotzea, lantaldeak berrituta (barne-koordinazio taldea edo talde eragilea eta talde operatiboaren lehen talde pilotua). Planaren funtzionamendu eta sozializazio egokirako funtsezko elementua.

- Tosepanek bere proiektuetan hizkuntzaren zeharkakotasuna bultzatzeko egindako apustua; izan ere, Kooperatiba Taldeak bezala, bultzatzen

diren proiektuek integralak izan behar dutela uste da, besteak beste, jasangarritasuna ziurtatzeko.

- Tutunakua suspertzearen alde lan egiteko apustua, hizkuntza ofiziala baita eta Tosepan Kooperatiba Taldearen eragin-lurraldean baitago.

- Leticia Esteban (nawat) proiektuaren koordinatzaileak eta Miriam Hernández (tutunakú) Euskal Herrian hilabetez HIBIL ikastaroan parte hartzea. Ikastaro horrek harremanak estutzeko eta proiektuan aurrera egiteko balio izan du.

-Jarduera garrantzitsuei hasiera eman zaie: nawat-eko idazketa eta irakurketa-tailerrak (código maseual), "Tomako Tochikawalis/La Energía en Nuestras Mano" nawat-ez irratsaioa eta Nawateko Testu Zaharren Itzulpen Tailerra, besteak beste.

Pausu berriak, nasa yuwearen eta kitxuaren aldeko senidetzean

NASA YUWEA - CAUCA - KOLONBIA



Hainbat urteko lanaren eta zenbait formazio prozesuren ondoren, 2020aren amaieran onartu zuen Nasa Yuwe Hizkuntza Biziberritzeko Hizkuntza-Plana Cauca iparraldeko Plan de Vida Proyecto Nasak. 2022an, urtebete lehenago hasitako bideari jarraiki, hizkuntza-plan horren inplementaziorako formazioa eta aholkularitza ematen jarraitu dugu. Horretarako, lau lankidetzatza bidaia egin ditugu Euskal Herriko sei irakasle eta aholkularik eta, gainera, biziberritze-lantalde bakoitzari online aholkularitza eman diogu urte osoan zehar. Lan horren emaitza bezala, besteak beste, nasa lagunek prest dauzkate murgiltze eredu martxan jartzeko lehen hezkuntzako lehenengo mailarako materialak, helduei nasa yuwe hizkuntza irakasteko A1 mailarako metodologia sortu dute, hiztun helduak alfabetatzeko gidaren

lehenengo atala amaitu dute, aurrerapausu handiak eman dituzte herrian errotulazio elebiduna jartzen...

Bestalde, nasa herriaren eta Ekuadorreko kitxuen arteko senidetzeak ere aurrera egin du urte honetan. Lehenagotik ere bazuten harremana bi herri hauek, geografikoki ez baitaude oso urrun, bi estatutuz ezberdinetan bizi arren. Elkarlana indartzeko, kitxua talde bat Caucara joan zen martxoan. Tamalez, haiek heldu ziren egun berean agintari nasa bat erail zuten, eta bertan behera utzi behar izan zuten topaketa. Urrian, berriz, nasa talde bat Imbaburara joan zen, bisita itzultzeko asmoz. Bertan, aukera izan zuten herri bakoitzaren biziberritze esperientziak partekatzeko, eta elkarlanean jarraitzeko senidetze-akordioa sinatu zuten.

Sei biziberritze talde, elkarrekin lanean

KITXUAK - EKUADOR



2021ean lau hilabeteko diplomatura egin genuen Ekuadorreko Imbabura probintzian, 168 ordu presentzialekoa. Diplomaturaren amaieran, ikasleek sei biziberritze-lantalde sortu zituzten, bertan ikasitakoa inplementatzeko. 2022an, sei biziberritze-lantaldeek lehenengo ekintzak burutu dituzte, eta haien arteko sarea sortu dute, “Kichwa Yachayta Sisachikuna” (kitxua biziberritzaileen sarea) izenekoa, AJKI, Sisariy eta Garabide elkarrekin batera. Sare horren bitartez, Imbabura probintzian hizkuntza biziberritzeko lanean ari diren pertsona eta erakundeak elkartu nahi dituzte. Ondorengoak dira sei taldeak:

- Kichwa Sapikuna: helduei kitxua irakasteko metodologia eta materialak sortzen ari dira, A1 maila ikasteko materialetatik hasita.
- Kichwata Kuyani: probintziako hiru eskola pilotutan murgiltze eredu ezartzeko lanean ari dira.
- Kichwa Shimita Pakarichishun: Cotacachi udalerriko emagin tradizionalen bitartez, guraso izango direnei sentsibilizazio saioak ematen dizkiete, hizkuntza etxean transmititzearen garrantziaz jabetu daitezten.

• Kichwa Wayrapi: komunikatzaile digital kitxuak sustatzeko formazioak ematen dituzte.

• Kichwa Kawsaypi Wiñarishun: bi kitxua udaleku antolatu dituzte, Gabonetan eta udan, Ibarra udalerriko La Esperanza parrokiaren.

• Kichwa Tukuypa: hizkuntzaren erabilera eta sustapena arautzeko ordenantzak prestatzen ari dira Imbabura probintziarako eta Ibarra udalerrirako.

Aurrekoaz gain, apirila eta maiatza artean “Shimi Muyuta Tarpushpa” Hizkuntzak Biziberritzeko Nazioarteko I. Kongresua antolatu genuen Imbaburan. Hiru egunez, hainbat herritako biziberritze esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen: kitxuak, Yukatango maiak, kaqchikelak, nasak, galiziarak, maputxeak, nawatak, awapitak, Costa Ricako hizkuntzak... Batzuek bertatik bertara hartu genuen parte, beste batzuek online, eta 100 entzule inguru batu ziren.

Azkenik, nasa yuwe hizkuntzari dagokion atalean aipatu dugun bezala, zenbait ekimen garatu ditugu urtean zehar, kitxua herriaren eta nasa herriaren arteko elkarlana eta senidetzea indartzeko asmoz.

Irakasle mugimendua, ketxuaren alde

KETXUAK - BOLIVIA



2021ean hasitako lanari jarraipena emanez, formazio programa bat burutu dugu Boliviako ketxua lagunekin, ketxua hizkuntzaren hizkuntza-plangintza osatzeari begira. Hasieran ILCQ (Instituto de Lengua y Cultura Quechua) erakundeak gidatu du prozesua, baina azkenerako hiru irakasle-eskolak hartu dute lekukoa. Potosi, Chuquisaca eta Cochabamba departamentuetako 60 ikaslek hartu dute parte formazioan, hainbat lan arlotakoak: irakasleak, komunikatzaileak, administrazio publikoko langileak, hizkuntzalariak...

Formazioaren lehenengo zatia online egin dugu. Saio horietan, hizkuntzak biziberritzeko estrategia nagusietako batzuk ezagutu ahal izan dituzte partaideek, Euskal Herriko adituen eskutik: hizkuntzak biziberritzeko gakoak, hiztunen aktiba-

zioa, hedabideak, hezkuntza, estandarizazioa, kulturgintza, hizkuntza diagnostia eta plangintza...

Online saioak amaituta, Garabideko bi kide Sucren izan dira, formazio prozesuari jarraipena emateko. Hiru helburu nagusi jarri ditugu formazio presentzial honetarako: lehenik, online ikasitako edukiak birgogoratu eta indartzea; bigarrenik, edukiak ketxuaren errealitatera hurbiltzea; eta, azkenik, ketxua biziberritzeko plan orokor baten zirriborroa egitea eta bide-orri bat irudikatzen hastea. Formazio horren amaieran, hizkuntza-plangintzaren eraikuntzarekin aurrera egiteko, hiru lantalde jarri dituzte martxan ketxua lagunek, hizkuntzaren lurraldea osatzen duten departamendu banatan, eta hemendik aurrera ere elkarrekin bidea egiten jarraitzeko asmo dugu.

Guaraniaren plana herritik agintarietara pasatzea helburu

GUARANIAK - BOLIVIA



ARG: JOSÉ LEDEZMA

Boliviako behe lurretan bada komunitate indartsu bat, hizkuntza biziberritzeko lanetan arduratsu ari dena: guarani komunitatea, hain zuzen. Boliviako errepublika plurinazionalak onarpen bat emana die bertako herri eta hizkuntza indigenei, eta horien artean autonomia indigena sortzeko aukera dute bertako herriek. Autonomia hori eskuratzen lehendabizikoak izan dira guaraniak, Charagua-Iyambaeko autonomia indigena, hain zuzen ere. Euren agintari eta gobernuak edukita, hizkuntza ere euren politiketan txertatu nahian

dabiltza Garabiderek elkarlanean ari diren aktibista guaraniak.

Plana eginxa dago eta 2022an hori guarani herrietan zabaltzen ari dira, euren asanbladetan aurkeztu eta agintarien aurrean plana defendatzen. Herritarren eta agintarien babeseko ezinbestekoa dute plana inplementatzen hasteko. Datorren urtean, 2023an Garabideko ordezkariak joango da Charaguara, plan hori martxan jarri behar dutenei inplementazioan laguntzera.

Wallmapuko larreetan hausnarrean

MAPUTXEAK - WALLMAPU



Inflexio urtea izan da maputxeentzako 2022a, Hibil ikastaroan egondako partaideek aire freskoa eraman zuten Euskal Herritik urte hasieran eta besapean eramandako ideia eta ekimenek urtearen joana baldintzatu zuten. Mapuzuguletuañ elkarte helduen irakaskuntzan ari da bere sorreratik, eta horretan dabil irmo. Aurrez aurrekoak, on line modalitatekoak, barnetegiak, asteburuko egonaldiak... Euskal Herriko euskaltegien formatua heureganatzen ari dira eta hiztun berriak sortzeko prozesua etengabea da.

Zornotzako barnetegiarekin batera sorturiko materialak 2022an ikusi du argia eta aurrerapauso izugarria izan da klaseak ematerako garaian. Guzti horri Hibil ikastaroan Mapuzuguletuañeko partaideak sorturiko proiektuaren egikaritzea gehitu behar zaio: mapuzugun hiztunak alfabetatzea

etorkizun hurbil batean prozesu guzti honetan parte har dezaten. Los Rios eskualdeko Panguipulli udalerriko eskoletako hezitzaile tradizionalak ere martxa azkarrean dabilta.

Formazio urte bezala izendatu dute 2022a, eta haien asmoa hezkuntzan dabilta hezitzaile guztiak mapuzugun hiztun oso bihurtzea da, pixkanaka mapuzugunak eskola eta ikastetxeetan presentzia handiagoa izan dezan. Formazio horren baitan eskola publikoetako hezitzaile tradizionalen sareak hizkuntzaren trataerak hezkuntzan daukan garrantziaren inguruko jardunaldiak antolatu zituzten azaroaren 24an eta komunitate ezberdinetan hizkuntzaren garrantziaz ohartzeko sentsibilizazio saioekin ere ari dira. Ekin-tza txiki hauek guztiekin gauza handiak lortuko dituzte Wallmapun!!

Amazigaren aldeko argi-printzak Al Hoceiman

AMAZIGAK - IPAR AFRIKA



Amazigen herrian hizkuntza aktibista asko ari dira lanean, egunero, baina lan nekeza da eurena, tokian tokiko gobernuen laguntzarik gabe, eta sari askotan presiopean ari baitira. Garabide elkar-teak 2022an bost amazig izan zituen Aretxabale-tan, beste 12 hizkuntza komunitatetako kideekin batera. Amazig horien artean baziren Algeriako Kabilia eskualdekoak, eta baita Marokoko Rif eskualdekoak ere, Melillako bat ere bai. Garabide eta amazigen arteko lana ez da berria, baina oraindik proiektu xumeetan ari gara, egoerak eskaintzen dituen baliabide urriak direla eta.

Dena dela, 2022an Rif eskualdeko Al Hoceima hirian bost eguneko jardunaldiak izan dira, eta bertan izan dira Jon Sarasua eta Xan Aire euskal herritarrak, euskal esperientzia kontatzen. Amazig adituak ere bertan izan ziren, asko diasporatik etorriak, Paris-ko unibertsitateko Mena B. Lafkioui irakasle emeritua, tartean. Jardunaldi horietan 45 amazig aktibistek parte hartu zuten, oso esparru ezberdinetan ari direnak, eta horien artean, oso nabarmenezkoa, gazte aktibista kopurua. 2023ari begira taldetxo bat Euskal Herrira ekartzeko pentsamenduak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira.

Kaqchikelezko 65 istorio grabatu dituzte bideoan

MAIA HIZKUNTZAK - KAQCHIKELAK - GUATEMALA



Aurten bi egitasmo nagusi babestu ditugu Guatemalako maia hizkuntza-komunitateekin. Batetik, Ruk'u'x Qatinamit eskola kaqchikelen sareari materialgintza lanetan lagundu diogu. Pandemiaren eraginez, haien ikasleek ahozkotasunean zailtasunak dituztela identifikatu dute, eta arlo hori lantzeko materialak sortzen ibili dira buru-belarri. Horretarako, kontakizun laburrak idatzi dituzte kaqchikel hizkuntzan, eta bideo grabazioak egin dituzte, kontakizun horiek irudiekin lagunduta kontatzeko. Lan horren bitartez, kaqchikelezko 65 istoriotik gora jaso dituzte bideoan.

Bestetik, uda aurretik Guatemalako Maia Hizkuntzen Akademiako (ALMG) kideak gurekin harremanetan jarri ziren, Garabide eta haien arteko harremana ehuntzeko asmoz. Lehenengo pausu

bezala, hiru eguneko online ikastaro orokor bat egin dugu. Iraila amaieran egin dugu lehenengo saioa ALMGko kide guztiarekin, hizkuntza bat biziberritzeko prozesua kokatu eta biziberritze estratategia nagusiak azaltzeko. Hurrengo bi saioak egiteko, hiru taldetan banatu dituzte haien langile guztiak. Batetik, zuzendaritza arlokoekin biziberritze estratategien eta hizkuntza plangintzaren inguruko formazioa eskatu dute. Bigarrenik, administrazio eta finantza arloez arduratzen direnekin hizkuntza-aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa landu dugu. Azkenik, teknikariei biziberritze arlo zehatzen inguruko formazioa eman diegu, akademiak lantzen dituen lau biziberritze arloak oinarri hartuta: helduen maiaduntze eta alfabetatzea, komunikazioa, itzulpen gintza eta estandarizazioa.

Ayiti espres, lehen kontaktu baten kronika

HAITI



Haiti Karibe itsasoko irletan dagoen herrialdeetako bat da. Munduko lehen «errepublik beltza» izan zen eratu eta independizatzen, eta, ekonomiko-ki Amerikako herrialderik txiroena da. Bertako hizkuntza ofiziala kreolera da frantsesarekin batera 1961etik.

XVI. mendean dozenaka mila esklabo eramaten zituzten urtero, inongo kopuru eta dentsitate handiena osatu arte. Hirurehun urtean iraun zuen esklabotza sistemak, etenik gabe. Afrikako hainbat herrialdeetatik eramaten zituzten, eta ez zuten elkar ulertzeko aukerarik. Garai hartako frantsesa oinarri hartu eta hizkuntza afrikarren elementuekin nahastuta hizkuntza bat osatzen joan ziren, beren patroiek ulertuko ez zuten mintzaira taxutzeko beharrak ere bultzatuta.

Gaur egun Haitin denek hitz egiten dute kreolez, baina hezkuntza, administrazioa eta ofizialki egin beharreko prozesu guztiak frantsesez egiten da. Kreole hizkuntzaren inguruan gogoeta politikoa sustatu nahian dabilta agintari batzuk, eta Espainiako enbaxadak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez gonbidatuta euskal esperientzia kontatzera joan da Garabideko Jon Sarasua bertara udaberri inguruan.

Jardunaldian bildu dira Haitiko hezkuntza ministroa, Kreole Akademiako burua, Massachusetts-eko M.I.T.eko (Massachusetts-eko Teknologia Institutua) bi aditu eta Jon Sarasua bera. Orain arte Garabideko kontaktua izan duenekin konparatuta bestelako egoera daukan komunitatea da Haiti, baina oso interesgarria hauen errealitatea eta egunerokoa nolakoa den jakin eta presente edukitzea ere.

Itzulpengintza eta interpretazio jardunaldiak

EUSKAL HERRIA



Garabideko formazioetan beti aipatzen da hizkuntza biziberritzeko estrategietan hainbat arlo batera garatu izanak sekulako garrantzia izan duela. Arlo horiek aipatzen dira, urtez urte, gure formazioetan, baina gutxitan izaten da aukera arlo batean sakontzeko eta tokian tokiko egoe-ra zein den jakiteko. Horregatik, bide horretan 2022an oso interesgarria izan da Itzulpengintza eta Interpretazioaren inguruko jardunaldi birtuallak antolatu izana. EHUko Itzulpengintza eta interpretazio alorrarekin elkarlanean, Garabidek bi

eguneko jardunaldia egin du azaroan, eta bertan hizlari eta parte hartzaile izan dira tokian tokiko zazpi komunitatetako interprete eta itzultzaileak: kitxuak, nasak, maiak, kaqchikelak, amazigak, mixeak eta euskaldunak, besteak beste. Jardunaldi horiek Gasteizko Letren Fakultateko Gradu Aretotik bideratu dira, Itzulpengintza eta Interpretazio Graduko ikasle interesatuak ere bertan izan direla. Hainbat euskal erakundetako kideek ere parte hartu dute jardunaldi ireki horietan, eta baita banakoak ere.

3. LERRO ESTRATEGIKOA

AKTIBAZIO SOZIALA EUSKAL HERRIAN

Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen



2020 urtean sortutako liburu eta erakusketa honek bi helburu nagusi ditu. Batetik, kooperazio linguistikoa nola ulertzen dugun adieraztea, zein balio, zein garrantzi eta zein aukera dituen. Bestetik, isilarazitako herri indigenetara hurbiltzea, haien sentipenak eta sentiberatasunak ezagutu ditzagun.

Erakusketara hurbiltzen den bisitariak hainbat kontakizun aurkituko du bertan, bakoitza hizkuntza batean eta bakoitza mundu batera hurbiltzen gaituen irudi batez lagunduta, indigenen hitzak eta indigenen begiradak islatzen dituzten paneletan bilduta.

Ordutik, biran dabil Euskal Herriko kultur etxe, ikastetxe eta bestelako guneetan.

Aurten herri hauetan izan da:

- Gasteiz - Irakasleen euskarazko prestakuntza zerbitzuan (Irale)

- Gasteiz - Letren Fakultatean (Unesco Katedrarekin batera)

- Anoetan - Liburutegian

- Zizurkil - Liburutegian

- Tolosa - Aranburu Jauregian

- Urdaibai - Ekoetxean (Unesco Katedrarekin batera)

2022an pauso bat harago eman dugu proiektuak egindako bidea ikusita eta hezkuntza komunitateak hala eskatuta: liburuaren eta erakusketaren osagarri den gida didaktikoa plazaratzea. Bertan proposamen bat biltzen da hizkuntza aniztasunaren gaia lantzeko. Gogoeta eragiteko ariketa sorta 14 urtetik gorako ikasleentzat pentsatuta dago, baina erraz moldatu daiteke bestelako ezaugarriak dituzten taldeetara.

Euskal lankidetzan hizkuntza gutxituekin lanean



2020an ekin genion Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundearen baitako erakundeetan eta horien tokiko erakundeetan lankidetzaren baitan hizkuntza eta kultura irizpideak kontuan hartzearen inguruan dagoen jarreraren edo horren inguruan egiten den kudeaketaaren analisiari. Izan ere, Garabidaren egitekoa hizkuntza lankidetzaren da eta ez dugu ulertzen garapen iraunkorra komunitate baten indar kohesionatzaileak diren identitatea, kultura eta hizkuntza kontuan arte gabe. Urte horretan, ikerketa bat burutu zen garapen bidean diren herrietan eta komunitateetan euskal lankidetzaren erakundeek dituzten proiektuetan zer nolako hizkuntzen kudeaketa egiten den ezagutzeko. 40 elkarteren erantzunak lortu genituen eta bi ezta-

baida tailer ere egin ziren 8 GGKEekin.

2021ean, behin Euskadiko GGKE batzuen diagnosia eginda, horien tokiko erakundearen analisia egiteari ekin genion. Helburua zen ezagutzea ea beraien esku-hartze eremuetan edo xede-biztanlerietan jatorrizko hizkuntzek zein presentzia duten eta, baleude, ea kontuan hartzen diren lankidetzaren proiektuak garatzeko orduan.

2022an, hiru lan lerro izan ditugu: lanketa sako-nagoa egitea gai honetan interes berezia erakutsi duten Euskadiko GGKEekin eta horien tokiko erakundeekin, ikerketa horren emaitzak partekatzea gainontzeko GGKEekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen hizkuntza planari bultzada ematea.

Errenteria: Hizkuntza aniztasuna komunitateen arteko elkarbizitzarako



28

2021eko azaroa eta 2022ko martxoaren bitartean (HIBILEko ordezkarien egonaldia baliatuz) Errenterian DBH mailako ikasketak eskaintzen dituzten 6 eskoletatik 5etan aritu izan gara hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxituen inguruko sentsibilizazio proiektua garatzen.

Munduko hizkuntza aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa landu da saio horietan eta Errenteriako hizkuntza aniztasunari begira jarri ditugu ikasleak. Saio horien ondoren, otsailean eskolek


Garabide-
ren “Belt-
zean Mint-
zo” dokumentala landu dute ikasleekin.

2022ko martxoan, gela guztietan hitzaldiak egin dira Erdi eta Hegoamerikako hizkuntza komunitate gutxiagotuetako ordezkari indigenekin eta kurtso amaieran ikasle bakoitzak inkesta bat bete du bere familiako hizkuntza paisaia ezagutzuz Errenteriako DBH 3.mailako hizkuntza paisaia eratzeko.

2022KO BALANTZEA

29

EGITURA



BABESLEAK
Euskal Herriko 33 entitate.

LAGUNTZAILEAK
Euskal Herriko 38 entitate sozial.

BOLUNTARIOAK
37 Boluntario.

BAZKIDEAK
87 Bazkide.

BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

Diru-laguntza lehiakorrak	297.469,70 €
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	242.365,60 €
GUZTIRA	539.835,30 €

GASTUAK

Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetzaren proiektuak + on-line formazioak	37.689,21 €
Hegoko diplomaturak	259.658,47 €
HIBILO1: Herri indigenen hizkuntzen biziberritze estrategiak indartzeko lehen lankidetzaren sarea	141.226,67 €
Genero plana	30.399,88 €
Administrazioa	12.340,00 €
Koordinazioa	30.846,00 €
Zabalkundea	24.700,00 €
GUZTIRA	536.860,23 €

BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesten dute. Ekarpen ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2021eko bukaeran **33 erakunde babesle** zituen. Horrez gain zinez eskertu behar dugu **87 bazkideek** erakutsitako babesa.

Ekarpen ekonomikoa egitetik haratago, **37 boluntarioen eta 38 entitate laguntzailearen lana** aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzaren proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimentsio eta ezaugarri anitzeko ekarpen guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzaren ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztioi.

• BABESLEAK •



• LAGUNTZAILEAK •




garabide
elkartea
2022


943 25 03 97


688 63 24 33


garabide@garabide.eus


www.garabide.eus

 /Garabide.eus

 @garabide

 /Carabide

 /Carabide Elkartea

 @garabideelkartea